

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Enpresarentzat bezeroak ezinbestekoak dira, haiek gabe enpresa aurrera joatea ezinezkoa baita.

Aurretik esan bezala, hasteko zinemako sala batean bakarrik zentratuko gara baina etorkizunari begira, beste hainbat saletan zabaltzea gustatuko litzaiguke, motibazio bezala bezero eta kontsumitzaile berriak lortzea izanik.

Bezeroekiko harremanei dagokionez, bi harreman mota izatea iruditu zaigu egokiena ahalik eta modu gehienetan zabaldu ahal izateko eta gurekin komunikatzeko errazagoa izateko:

Alde batetik, zerbitzu automatizatua emango dugu, web orri baten bitartez. Bertan gure enpresaren izena aterako da eta bezeroei eskaini nahi diegun zerbitzua. Web orri horretan gure ideia eta baloreak argi agertuko dira, hala nola, aniztasun funtzionala duten pertsonen integrazioa lortzea, eta haien eskubideengatik borrokatzea, haiek ere pertsonak direlako eta denek eduki beharko genituzkeelako eskubide eta aukera berdinak gizaratean. Ildo horretatik, esan bezala gu gurpildun aulkia behar duten pertsonetan oinarritu gara eta hauek askotan arazo asko izaten dituzte mugikortasunari dagokionez eta beraz, gure web orrian ere irisgarritasunari garrantzi handia emango diogu. Guzti honekin batera, web orrian sekzio bat egongo da nahi duenak gurekin kontaktatu nahi badu eta gure zerbitzua kontratatu nahi badu, email bidez egiteko aukera izango du.

Bestetik, bigarren harreman motari dagokionez, gurekin telefonoz kontaktatzeko aukera ere emango dugu. Honez gain, pertsona bat izango dugu inguruko zinemetara joango dena gure zerbitzua zabaltzeko helburuarekin. Gizartea teknologikoki oso aurreratuta egon arren oraindik badaude pertsona batzuk ez dakizkitela edo ez dituztela nahi teknologia berriak erabili eta beraz, horregatik bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua eskaini nahi dugu.

Pertsonalizatutako laguntza pertsonala emango dugu ere; enpresaren ordezkari batek bezeroari zuzenean laguntza emateko aukera eman nahi dugulako.



Hainbat pertsonak zailtasunen bat izan dezakete agian haientzat egokitutako gunera iristeko edota butaketara mugitzeko; beraz, gure enpresako ordezkari bat bertan egongo da horrelako arazoren bat gertatuz gero pertsona horiei lagundu ahal izateko.

